

# LAKUNTZA'KO GALDAREA

Burunda´koak letaiñi-egunean Aralar mendira, San Migelen eleizara joaten dira, urtero.

Eleizako zeregiñak beteta, erri bakoitzak toki bat aukeratzen dau, bazkaria gertatzeko: erri batekoak emen, bestekoak or.

Lakuntzarrak atx-balda baten ertza euken orretarako.

Eta an jarri eben galdara aundi bat odolostez beteta, egur gaiñean. Egurrak sutan zirala, eta areitariko bat erre zanean, atx-baldatik jausi, eta, bilin-balaunka, or joan zan atxak beera ta mendiak beera, beko Sakana´raiño.

Au ikusi ebenean, Lakuntzarrak esan eben:

—Galdareak umeak egingo ba´ditu be, odolosteai eutsi! Ordutik Naparroa osoan, agopean batak besteari, itanduten dautse:

—Zer egin eban Lakuntzarren galdareak?

*Irakurlea: Karmele Uriarte - Andereiñoa Balmaseda´ko Ikastolan*